



02
c.
ESKOLA-ORDUZ KANPOKO ESPARRUAN
ERAGITEKO EGITASMOAK

NAFARROAKO UDAL ETA
MANKOMUNITATEETAKO EUSKARA
ZERBITZUEK BIDERATUTAKO
EGITASMOAK: DIAGNOSIA ETA
BALORAZIOA

Anabel Armendariz Tirapu

Orkoien, Etxauri, Bidaurreta eta Oltza Zendeako euskara teknikaria


Patri Arburua Etxeberria

Bortzirietako Euskara Mankomunitateko teknikaria

Helbide elektronikoa: bortziriak@euskalnet.net

SARRERA

Izenburuak dioen bezala, artikulu honetan Nafarroako udal eta mankomunitateen menpe dauden euskara zerbitzuek haur eta gaztetxoen astiari begira dituzten egitasmoak azalduko ditugu. Ez gara Nafarroa osoaz ari, beraz. Ondoko mapa honetan Nafarroan euskara zerbitzua duten udalerrak markatu ditugu:



Iturria: Argia astekaria

Haur eta gaztetxoentzat astiari begira antolatzen den egitasmo ororen helburua da neska-mutikoei eskola bezalako eremu formaletik kanpora euskaraz aritzeko aukerak ematea, jarduera ludiko eta gustagarrietan euskaraz aritzeko modua izan dezaten, eta, aldi berean, eskolan ikasten duten hizkuntzaren erregistro formalaz gainera, lagunartean erabiltzeko balioko dien hizkera informala lantzeko eta praktikatzeko bidea izan dezaten. Horrez gainera, euskaraz ez dakitenen kopuruak nagusi diren herrietan, euskarazko astiak haur euskaldunei euskaraz aritzeko gune bat eskaintzea du xede, kontuan harturik herri horietan plaza erdalduna dela.

Modu batera edo bertzera, zerbitzu guztiek bideratzen dituzte haur eta gaztetxoentzako astirako egitasmoak. Eta, izenburuari lotuz, artikuluan zerbitzu horien astirako eskaintza —haiek antolatu nahiz finantzatutakoa— zein den azalduko dugu. Horixe da artikuluko honetarako eskatu dugutena, eta horietan dira gaur egun gure esku dauden datuak.

Hala ere, hemendik ezin da ondorioztatu Nafarroan haur eta gaztetxoentzako astirako euskaraz programatzen dena guk hemen azaldukoak bakarrik denik. Alde batetik, euskara zerbitzurik ez den herrietan baliteke astia euskaraz izatea, batez ere euskarazko irakaskuntza eskaintzen den tokietan. Bertze aldetik, euskara zerbitzua dagoen herrietan ere, bertzelako eskaintzak izaten dira. Errate baterako, guraso elkarteek, kirol elkarte edo zerbitzuek, kultura zerbitzuek eta antzekoek euskaraz programatzen dituztenak. Iruñerriko D ereduko ikastetxe gehienetan (eskola publikoetan eta ikastoletan) abian dira eskolako ordutegitik kanpoko jarduerak, bazkalondoan eta arratsaldeko eskolak bukatu ondoren egiten direnak. Ikastetxe publikoetan guraso elkarteek bultzatzen dituzte, eta Dindaia Fundazioarekin batera egiten dituzte; ikastolek bere programak dituzte (Xiba egitasmoa, Urtxintxa Eskola...).

Aitor dezagun, bidenabar, artikuluko hau idazterakoan datu biltzeko oso eta zehatz bat izatearen beharra agertu zaigula. Euskarazko astiaren

Batetik, euskaraz dakitenen kopuruak nagusi diren herriak daude. Horiek guztiak herri eta eskualde txikiak dira, eta astiaren eskaintza euskaraz izan ohi da. Ez dago bertzelako eskaintzarik, eta, hortaz, hizkuntzaren erabilerarekin lotura zuzena izan dezakeen helburuaz gainera, erran dezakegu haur eta gaztetxoei herritik atera gabe astirako jarduerak izateko xedea ere betetzen dutela.

eskaintza non egiten den jakiteaz gainera, eskaintza horren nolakoa eza-gutu beharko genuke, zer den programatzen dena, begiraleen soslaia eta prestakuntza, eta, jakina, eskaintza hori euskaraz izateaz gainera, euska-raren erabilera sustatzeko erabiltzen diren estrategiak zein diren.

DIAGNOSIA

Haur eta gaztetxoentzat astiari begira antolatzen den egitasmo ooren helburua da neska-mutikoei eskola bezalako eremu formaletik kanpora euskaraz aritzeko aukerak ematea, jarduera ludiko eta gustagarrietan euskaraz aritzeko modua izan dezaten, eta, aldi berean, eskolan ikasten duten hizkuntzaren erregistro formalaz gainera, lagunartean erabiltzeko balioko dien hizkera informala lantzeko eta praktikatzeko bidea izan dezaten. Horrez gainera, euskaraz ez dakitenen kopuruak nagusi diren herrietan, euskarazko astiak haur euskaldunei euskaraz aritzeko gune bat eskaintzea du xede, kontuan harturik herri horietan plaza erdalduna dela.

Euskara zerbitzuetatik antolatzen diren egitasmoak azaltzeko bi atal bereizi ditugu. Batetik, tokian tokiko eskaintzaren berri emanen dugu, eta, bertzetik, *Udalekuak euskaraz* euskara zerbitzuen egitasmo bateratua azalduko dugu.

Tokian tokiko eskaintza

Ez da gure asmoa, inondik ere, zerbitzu bakoitzak egiten duen eskaintza zehatz-mehatz azaltzea. Azalpen orokor bat egingen dugu, eta hortik aitzinera interesgarriak iruditu zaizkigun hainbat datu edo ezaugarri azalduko ditugu. Hiru motatako eskaintzak egiten dira:

- Ludotekak: oro har, urte osoan eskaintzen dira. Iraupenean eta maiztasunean ezberdintasunak daude: batzuk ikasturteari lotuak dira, eta oporraldietako eskaintzetatik bereizten dira, bertze batzuetan urte osoko eskaintza egiten da, oporraldiak barne; astean ematen den ordu kopurua ezberdina da, toki batzuetan larunbatetan eskaintzen da, etab.
- Oporraldiatarako egiten den eskaintza: tokiaren arabera izen ezberdina hartzen badute ere (ludotekak, jolas tailerrak edo udaleku irekiak), garai horietan euskaraz aritzeko aukera edo gunea eskaini nahi izaten dute. Are gehiago egoera soziolinguistikoak euskaraz aritzeko aukera gutxi ematen duen tokietan; izan ere, kasu horietan, eskolarik ez den garaietan inguru erdaldunetan bizi diren neska-mutikoei hizkuntza gaitasunean galerak izaten dituzte.
- Bertso eskolak: gaur egun Bortzirietan, Leitzaldean, Malerrekan, Sakanan, Iruñean eta Iruñerriko bizpahiru herritan ari dira. Normalean ikasturtean zehar aritzen dira.

Ludoteka eta oporraldietako eskaintza horien kasuan, gehien-gehienetan euskara zerbitzuetatik antolatu eta kudeatzen dira; bakan batzuk dira finantzatu egiten dituztenak. Bertso eskolen kasuan, aldiz, kasurik gehienetan euskara zerbitzuetatik diruz lagundu egiten dira, eta bakar batzuetan antolatu ere bai (promozioa egin, edo izen emateak antolatu, erraterako).

Kontuan hartu behar dugu tipologia aski ezberdinetako herriez ari garela, egoera demografiko nahiz soziolinguistikoari dagokionez.

Batetik, euskaraz dakiteneen kopuruak nagusi diren herriak daude (Baztan, Bortziriak, Malerreka, Leitzaldea, Ultzamaldea, Larraunaldea, Sakana eta Piriniotako herri batzuk...). Horiek guztiak herri eta eskualde txikiak dira, eta astiaren eskaintza euskaraz izan ohi da. Ez dago bertzelako eskaintzarik, eta, hortaz, hizkuntzaren erabilerarekin lotura zuzena izan dezakeen helburuaz gainera, erran dezakegu haur eta gaztetxoei herritik atera gabe astirako jarduerak izateko xedea ere betetzen dutela. Egoera soziolinguistikoak hori euskaraz egitea ahalbidetzen du, haur eta gaztetxo gehienek hizkuntza ezagutzen dutelako (etxean hala ikasi dutelako edota eskola bidez ikasi dutelako). Euskara zerbitzuek egin dezaketen eskaintzaz gainera, bertzelako zerbitzu, talde eta erakundeek egiten dituzten eskaintzetan izaten dira hainbat salbuespen. Errate baterako, kirol jarduera batzuk gaztelaniaz dira, begiraleek ez dakitelako euskaraz; edota musika eskola batzuetan ez dago euskaraz ikasterik, irakasleek ez dakitelako, etab.

Bertzetik, euskaraz ez dakiteneen kopuruak nagusitzen diren herri eta eskualdeak daude. Multzo honetan herri eta eskualde handienak (Iruñea eta Iruñerria, Tafalla, Lizarra...) daude, baina baita herri txikiez osatutako eskualdeak ere (Pirinioetako herriak, Irantzu mankomunitatekoak, Orkoiengurukoak...). Batzuetan zein bertzeetan euskaraz dakiten neska-mutiko gehienak eskolan euskaldundutakoak dira, eta anitz dira familia erdaldunetakoak. Hortaz, eskolatik kanpo euskaraz aritzeko aukera eta gune gutxi izaten dituzten umeak dira.

Toki horietan jarduera hauek euskaraz aritzeko espazio bat eskaintzeko xedea izaten dute; ez dugu ahantzi behar herriko plaza erdalduna izaten dutela. Batez ere, opor garaian antolatzen diren ludoteka, tailer eta antzekoen kasuan, euskara praktikatzeko edo erabiltzeko gune izaten dira. Izan ere, eskolarik ez den garaitan euskaraz aritzeko denborak eta guneak are gehiago murrizten zaizkie, eta horrek eragina izaten du haien hizkuntza gaitasunean. Erran liteke toki horietan neska-mutikoak eskolan eta ludotekan dauden bitartean euskarazko burbuila antzeko batean egoten direla, eta hortik kanpora euskaraz aritzeko aukerak hutsaren hurrengoak direla.

Multzo honetako herrietan herri txiki eta handien artean ezberdintasun nabarmen bat dago. Herri txikiagoetan neska-mutiko gutxiago izaten dira, eta denek ez dute euskaraz jakiten. Hortaz, batzuetan ez da haur

Bertzetik, euskaraz ez dakiteneen kopuruak nagusitzen diren herri eta eskualdeak daude. Multzo honetan herri eta eskualde handienak (Iruñea eta Iruñerria, Tafalla, Lizarra...) daude, baina baita herri txikiez osatutako eskualdeak ere. Batzuetan zein bertzeetan euskaraz dakiten neska-mutiko gehienak eskolan euskaldundutakoak dira, eta anitz dira familia erdaldunetakoak. Hortaz, eskolatik kanpo euskaraz aritzeko aukera eta gune gutxi izaten dituzten umeak dira.

Udalekuak euskaraz egitasmoa duela hamabortz bat urte abiatu zen. Hasieran euskara zerbitzu bakoitzak bere aldetik antolatzen zituen udalekuak, txandak, haur kopuruak eta abar; horren ondorioz, herri edo eskualde bereko haurrak udalekuan elkartzen ziren, eta horrela, nolabait, ikasturteko segida izaten zuten berezko haur koadrilek.

kopuru nahikorik izaten euskaraz eskaintzen diren jarduerak betetzeko, eta ondorioz haur euskaldunek gaztelaniazko jardueretara joan behar izaten dute.

Aldiz, herririk handienetan (Zizur Nagusia, Berriozar, Burlata...) haur kopuru nahikoa dago eskaintza euskaraz egiteko, gaztelaniazko eskaintzaz gainera. Hala ere, bi hizkuntzetako eskaintzak ez badira betetzen, denak gaztelaniara biltzeko presio handia izaten da.

Herririk handienez ari garenean pentsa daiteke hiriburuaz ere ari garela. Ez da hala. Iruñerriko herrietan haur eta gaztetxoentzako euskarazko eskaintzaren egoera hagitzez hobea da Iruñeko baina. Izan ere, Iruñeko Euskara Zerbitzuak haur eta gaztetxoentzako astirako egiten duen eskaintza eskasa da; gehienez ere ekimen batzuk diruz lagundu egiten ditu, edo kultur ikuskizunak antolatu. Beraz, astiaren eskaintza guraso elkarte eta bertzelako elkarte pribatuena esku dago.

Udalekuak euskaraz egitasmoa

Udalekuak euskaraz egitasmoa duela hamabortz bat urte abiatu zen. Hasieran euskara zerbitzu bakoitzak bere aldetik antolatzen zituen udalekuak, txandak, haur kopuruak eta abar; horren ondorioz, herri edo eskualde bereko haurrak udalekuan elkartzen ziren, eta horrela, nolabait, ikasturteko segida izaten zuten berezko haur koadrilek.

Beranduago, duela hamar bat urte, Nafarroako euskara zerbitzu gehienak elkarlanean hasi ginen udalekuak antolatzen. Bi arrazoi izan genituen lana elkarrekin egiteko. Batetik, antolakuntza errazagoa eta egonkorragoa zen, haur kopuru handiak enpresekiko harremana errazten baitu. Ezin utzi tarte hau udalekuak daramatzaten bi enpresen lan ona goraiatu gabe; biak, Urtxintxa eta Artelatx, eskarmentu handikoak udalekuen dinamikan eta euskararen erabilera sustatzean.

Bertzetik, egoki ikusi genuen eskualde ezberdinetako haurrak udaleku berean elkartzea, nahastea. Izan ere, beti aberasgarria da guraso eta inguru euskalduna duten haurrak nahastea eskola eta ludotekako euskarara baizik entzuten ez duten haurrekin: familia eta herri euskaldunetako haurrek bertze tokietako haurren errealitate soziolinguistikoa ezagutzen dute; eta familia erdaldunetakoek, berriz, euskara hizkuntza bizia eta jolasteko egokia dela ikusten dute.

Baina hori ez da *Udalekuak euskaraz* programaren helburu bakarra; udalekua urtean zehar antolatzen ditugun ludoteka eta tailerren segida ere bada. Haurrek euskara eta astialdia eskutik doazela ikusten dute eta horregatik oso arrunta da ludoteka eta tailerretan ibilitako haurrak udalekuetara joatea. Beraz, udalekuetan, naturaz eta lagun berriez gozatzeaz gain, haur anitzek errealitate soziolinguistikoko ezberdina topatuko dute, udalekuetako herriak (kostaldekoan Pasaia eta mendialdekoan Alkiza) euskaldunak baitira.

Gaur egun 650-700 neska-mutilek parte hartzen dute udalekuetan, hiru adin taldetan banaturik: LHko 1.-3. mailak, LHko 4.-6. mailak eta DBHko 1.-2. mailak; guztira 16 txanda. Zenbait estrategia erabiltzen ditugu eskualde ezberdinetako haurrak nahasteko eta neska-mutikoen errealitateak orekatzeko: zozketaren bidez banatzen ditugu plazak baina euskara zerbitzu bakoitzak haur kopuru mugatua du txanda bakoitzean.

Diagnosiaren atal honi bukaera emanez, aipatu nahi dugu datu bilketa zehatz eta zabalago bat egitearen beharra ikusten dugula, egiazki ikusi ahal izateko euskarazko eskaintza zenbatekoa eta nolakoa den. Guk emandako datuetan euskara zerbitzuak antolatzen dituen egitasmoak ageri dira, baina udaletan bertan bertzelako zerbitzuetatik (kirola, kultura, musika eskola...) egiten den eskaintza aztertu beharko litzateke. Jakin badakigu kasu anitzetan eskaintza euskaraz egiten dela, eta horretarako erabiltzen diren irizpideak biltzea komeni litzateke. Horrez gainera, udalerrietan bertzelako elkarteek egiten duten eskaintza aztertu beharko litzateke, eta nolako hizkuntza irizpideak erabiltzen dituzten. Azkenik, euskaraz eta gaztelaniaz egiten den eskaintza alderatu beharko litzateke, kantitateari nahiz kalitateari begira, bakoitzean jarritzen diren baliabideak, etab.

BALORAZIOA

Euskara zerbitzuen eskaintzaz

Eskuartearen ditugun datuen arabera, Nafarroan euskara zerbitzuak dauden udalerrietan euskarazko astia eskaintzen da. Gaineratzen ahal dugu 3-12 urte bitarteko neska-mutikoentzako euskarazko eskaintza zabala dela. Eskaintza udalerrian nahiz ikastetxean bertan (jolas orduetan, eguerdietan nahiz arratsaldeetan) egiten da. Adin horretan arazoak sortzen dira jarduerak espezializatzen direnean. Errate baterako, kirol jakin bateko kategoria zehatz batean haur euskaldunekin talde oso bat osatzeko arazoak izaten dira, batez ere herri txiki erdaldunagoetan.

Udalekuak euskaraz egitasmoaren kasuan, urtero udalekuak bukatuta ebaluazioa egiten dugu, bai enpresetako arduradunekin, bai haurrei galdetuta. Euskararen erabilerrari buruzko datuek erraten digute Iruñerriko haurrek normalean baino gehiago egiten dutela euskaraz, eta herri euskaldunenetakoa neska-mutilek, ordea, gaztelaniaz gehiago egiten dutela normalean baino. Datu hori kezagarria da, eta herri euskaldunetako euskara zerbitzuentzat paradoxa ere bada, herri horietako haurren balorazioetan gaztelaniaz normalean baino gehiago aritu direla agertzen baita.

Udalekuetan aritzen diren enpresek urtero hainbat estrategia erabiltzen dituzte euskararen erabilera areagotzeko eta haurrak euskararekin motibatzeko. Ez da beti lortzen emaitzak hobetzea, eta horretan zerikusirik handia du txanda bakoitzean parte hartzen duen haur taldearen erreali-

Eskuartearen ditugun datuen arabera, Nafarroan euskara zerbitzuak dauden udalerrietan euskarazko astia eskaintzen da. Gaineratzen ahal dugu 3-12 urte bitarteko neska-mutikoentzako euskarazko eskaintza zabala dela. Eskaintza udalerrian nahiz ikastetxean bertan (jolas orduetan, eguerdietan nahiz arratsaldeetan) egiten da. Adin horretan arazoak sortzen dira jarduerak espezializatzen direnean. Errate baterako, kirol jakin bateko kategoria zehatz batean haur euskaldunekin talde oso bat osatzeko arazoak izaten dira, batez ere herri txiki erdaldunagoetan.

Udalekuak euskaraz egitasmoaren kasuan, urtero udalekuak bukatuta ebaluazioa egiten dugu, bai enpresetako arduradunekin, bai haurrei galdetuta. Euskararen erabilerari buruzko datuek erraten digute Iruñerriko haurrek normalean baino gehiago egiten dutela euskaraz, eta herri euskaldunenetako neska-mutilek, ordea, gaztelaniaz gehiago egiten dutela normalean baino. Datu hori kezkarria da, eta herri euskaldunetako euskara zerbitzuentzat paradoxa ere bada, herri horietako haurren balorazioetan gaztelaniaz normalean baino gehiago aritu direla agertzen baita.

tate soziolinguistikoak. Ez dugu ahantzi behar haur anitzek, D ereduan ikasita ere, euskaraz komunikatzeko zailtasunak izaten dituztela.

Gisa horretako balorazioen gainetik, urtero hobesten dugu toki ezberdinetako haurrak nahastea, errealitate ezberdinetako haurrak euskararen erabilera areagotzea helburu duen jarduera batean elkarrekin aritzea denontzako esperientzia aberasgarria delakoan.

Gai honen inguruan komenigarria ikusten dugu azterketa sakonagoa egitea: zer sentitzen dute H1 euskara duten haurrek erdaraz errazago egiten duten haurren ondoan? Eta H1 erdara dutenek zer sentitzen dute euskaraz bizi-bizi ari direnen ondoan? Etab.

Bertze udal zerbitzuen euskarazko eskaintzaz

Zenbait herri eta eskualdetan joera handia dago euskaraz eskaintzen den guztia, gaia edozein dela ere (kirola, kultura, aisialdia...), euskara zerbitzuetatik bideratzeko. Euskara teknikariek hainbat jardueraren gainean egiten ditugun balorazioetan sarri aipatzen dugu udaletan egitasmoak gaien arabera eskaini behar direla zerbitzu batzuetatik edo bertzeetatik; alegia, udalerrian euskaraz egiten den guztia (kultura, kirola...) ez dela euskara zerbitzutik bideratu behar, eta udaleko bertze zerbitzuek ere euskarazko eskaintza egin behar dutela. Denborarekin toki batzuetan lortu dute bertze zerbitzuetatik ere jarduerak euskaraz programatzea. Dena den, eta hori irizpide egokia izanik ere, horrek badu bere koxka. Izan ere, euskara zerbitzuari gero eta zailagoa zaio bertzelako zerbitzuetatik egiten den eskaintzaren kalitatea gertutik kontrolatzea, antolatzaileak bertze zerbitzuak izateaz gain, langileak kontratatzen dituzten enpresa zerbitzu-emaileak daudelakoz inplikaturik.

Egin dezagun bertze urrats bat

Astirako egitasmoen helburu orokorra eskolaz kanpoko eremuetan euskararen erabilera areagotzea eta hori jarduera ludiko eta gustagarrien bitartez egitea da. Iruditzen zaigu helburu horretan haratago joan behar dela, eta ez dugula konformatu behar jarduera horietan neska-mutikoak euskaraz aritzearekin:

- Batetik, jarduerak euskaraz izateaz gainera, erabilera sustatzeko berariazko estrategiak behar dira. Horiek ongi planifikatu eta diseinatu behar dira, batik bat tokian tokiko egoera soziolinguistikoa aintzat hartuta.
- Astiaren eremua aproposa da, aproposena ez errateagatik, neska-mutikoek, euskaraz hitz egiteaz gainera, euskararekin kontzientzia har dezaten. Bertze modu batean erranda, neska-mutikoen motxilak jarduera horietatik kanpo ere euskaraz aritzeko argudioz eta arra-

zoiz bete behar dira. Gainerakoan, urtetan erran dugu hurrek euskara eskolarekin lotzen dutela, eta hemendik aitzinera hurrek euskara eskolarekin eta ludotekarekin lotzen dutela erraten jarraitu beharko dugu. Ez gara gu pedagogian adituak, eta ezin erran dugu 3 urteko hurrekin gai hori nola landu behar den. Baina uste dugu haur txikienekin ere ingurumenarekiko kontzientzia (zaborra nola birziklatu, erraterako) lantzen bada, hizkuntza kontzientzia ere lantzen ahal dela.

- Halaber, uste dugu gune aproposa dela neska-mutikoei beren mundu emozional eta afektiboa euskaraz eraikitzei bideak emateko. Eta gune aproposa da hizkuntzarekin jolas egiten ikasteko; euskararekin gozatzeko eta sortzeko aukerak eta baliabideak eman behar zaizkie. Espresuki helburu hori izanen duten jarduerak planifikatzea beharrezkoa ikusten dugu. Gaur gaurkoz, egiten den eskaintza kontuan harturik, helburu hori bertso eskolei bakarrik betetzen dute.

Egoera bertatik ezagutzen dugu. Jakin badakigu euskara gutxiengo baten hizkuntza den tokietan neska-mutiko anitzek euskaraz aritzeko duten gaitasuna hala modukoa dela. Euskaraz eskolatuak izanagatik, erregistro formal hori alde batera utzi behar dutenean (aisialdian, adibidez) euskaraz komunikatzeko zailtasunak izaten dituzte, eta adierazkortasunean defizit larriak. Kasu horietan are premiazkoagoa ikusten dugu euskara gustagarri izan dakien berariazko estrategiak lantzea.

Egoera soziolinguistiko ezberdinak izanagatik, eta zerbitzu bakoitzak astirako eskaintza eta planifikazio orokorra bere kabuz egin badezake ere, hizkuntzaren erabilerarekin lotura duten gaiak elkarlanean jorratzekoak izan daitezke.

Zalantzarik gabe, plangintza egoki batez gainera, oinarritzakoa da begiraleen gaia aztertzea; funtsezkoa da haur eta gaztetxoaren artean hizkuntza behar bezala sustatzeko. Haietzako soziolinguistika ikastaro bat antolatzea aurreikusten ari gara. Begiraleek ongi ezagutu behar dituzte haurren behar linguistikoak, baita astia bezalako esparru ez formalean haurrentzako eredu linguistiko gisa daukaten garrantzia ere. Beraz, haurraren garapen linguistiko osoan astiak duen futzioaz kontziente izan behar dute, eta funtzio hori ongi garatzeko beharrezko prestakuntza jasotzeko eta dedikazioa emateko motibatu behar ditugu. Prestakuntza eta motibazio hori izanen dira ikastaroaren ardatzak.

Gaztetxoak

Artikulu honetan 3-12 urte bitarteko neska-mutikoentzako astiaz aritu gara. Hala ere, aipamen bat egin nahi genuke 12 urtetik goitiko neska-mutikoentzako eskaintzari buruz. Gaztetxoaren adin tartean gauza jakina da euskararen erabileran galerak izaten direla. Zalantzarik gabe, beha-

Zenbait herri eta eskualdetan joera handia dago euskaraz eskaintzen den guztia, gaia edozein dela ere (kirola, kultura, aisialdia...), euskara zerbitzuetatik bideratzeko. Euskara teknikariek hainbat jardueraren gainean egiten ditugun balorazioetan sarri aipatzen dugu udaletan egitasmoak gaien arabera eskaini behar direla zerbitzu batzuetatik edo bertzeetatik; alegia, udalerrian euskaraz egiten den guztia (kultura, kirola...) ez dela euskara zerbitzuetatik bideratu behar, eta udaleko bertze zerbitzuek ere euskarazko eskaintza egin behar dutela.

Jarduerak euskaraz izateaz gainera, erabilera sustatzeko berariazko estrategiak behar dira. Horiek ongi planifikatu eta diseinatu behar dira, batik bat tokian tokiko egoera soziolinguistikoa aintzat hartuta.

Gune aproposa dela neska-mutikoek beren mundu emozional eta afektiboa euskaraz eraikitze bideak emateko. Eta gune aproposa da hizkuntzarekin jolas egiten ikasteko; euskararekin gozatzeko eta sortzeko aukerak eta baliabideak eman behar zaizkie.

Begiraleek ongi ezagutu behar dituzte haurren behar linguistikoak, baita astia bezalako esparru ez formalean haurrentzako eredu linguistiko gisa daukaten garrantzia ere.

rrezkoa da jarduerak euskaraz eskaintzea; alabaina, gazte izateak dituen ezaugarriengatik, zaila izaten zaigu egiten diren eskaintzekin arrakasta eta, batez ere, jarraipena lortzea.

Beraz, euskara zerbitzuetatik adin tarte horri egiten zaion eskaintza eskasa da, eta gehienetan puntuala. Han-hemenka lagunarteko hizkera informala lantzeko saiakera batzuk egin dira (gazte hizkera lantzeko tailerrak, piropo lehiaketak...), baita bertzelako tailer eta ikastaroak ere; iraupen laburrekoak izan dira, jarraipenik gabekoak. Bertze toki batzuetan gazteentzako aldizkariak egin izan dira, eta horien jarraipena ere hala modukoa izan da. Euskara zerbitzuek elkarrekin antolatu eta eskaintzen ditugun udaleku itxietan 12-16 urte bitartekoentzako hainbat txanda eskaintzen zen lehen urteetan, baina azkenekoetan 12-14 urte bitartekoentzat eskaini izan da, adin gehiagokoek ez baitzuten izen ematen.

Bertzalde, Kuadrillategi egitasmoa Iruñerriko zenbait herritan egin izan da. Gaur egun Burlata eta Atarrabian jarraitzen dute, eta *Iseka Egitasmoa* deitzen zaio.

Gaztetxoan adin tartean euskararen erabilera sustatzeko egitasmoen beharra argi izanik ere, aitor dezagun gaur-gaurkoz alor horretan hutsune handia dugula.

Immigrazioa

Oraindik orain ez da gai bat Nafarroako euskara zerbitzuen astirako egitasmoetan berariaz lantzen dena. Esperientzia bakan batzuk izan dira, eta horien harira artikulu honetan aipamena egitea erabaki dugu.

Gaur egun euskara zerbitzua duten eskualde guztietan dago jende etorri berria. Eremu euskalduneko herri anitzetan, batez ere txikienetan, ikastetxeetan D eredua bertzerik ez da izaten, eta etorkinen seme-alaba batzuk bertan gelditzen dira (bertze batzuk, aldiz, A eta B ereduak eskaintzen dituzten ikastetxeetara joaten dira, batzuetan herritik kanpo). Neska-mutiko horientzat astirako eskaintzak berebiziko garrantzia du: eskolan ikasten duten euskara indartzeko balio die, hizkuntzaren bertze erregistro bat ezagutzeko, lagunartean erabiltzeko, eta, horren guztiaren gainetik, integraziorako bide zaie. Ludoteka eta udalekuetan izen eman duten etorkinen seme-alabekin izandako esperientzia xumeak aski positiboak izan dira, bi alderdi horietatik begiratuta.

Erran bezala, eremu euskaldunetan bertan, normalean herririk handienetan, A eredua eskaintzen da (eta Altsasu eta Beran baita B eredua ere). Hortaz, A eta D (eta B) ereduak aukeran jartzen diren tokietan etorri berriek seme-alabak A eredura lerratzen dituzte, kasurik gehienetan. Horrek haustura handia dakar bertakoen eta kanpokoen artean; kontuan izan herri horietan eskolaz kanpoko eskaintza gehien-gehiena euskaraz izaten dela, eta haurrek elkarren artean erabiltzen duten hizkuntza euskara izan ohi dela.

Hori ikusirik zenbait tokitan (Bortzirietan eta Sakanan, batik bat) A ereduko ikasleentzako eta etorri berrien seme-alabentzako (B nahiz D ereduetan matrikulatutakoak ere bai) asti-programak abian jartzeko egitasmoak prestatu dituzte datorren ikasturterako. Egitasmo horien helburu nagusia da neska-mutiko horiei jarduera ludikoen bitartez euskara ikasi eta praktikatzeko aukera ematea.

Eremu euskaldunetik at, kanpotik etorritakoen kopuruak aski altuak badira ere, gaur-gaurkoz astirako egitasmoen helburuetan ez da errealitate hau aintzat hartzen; horietan oraindik ere lehentasuna eskola bidez euskalduntzen diren neska-mutikoak dira.■

Eremu euskalduneko herri anitzetan, batez ere txikienetan, ikastetxeetan D eredua bertzerik ez da izaten, eta etorkinen seme-alaba batzuk bertan gelditzen dira (bertze batzuk, aldiz, A eta B ereduak eskaintzen dituzten ikastetxetara joaten dira, batzuetan herritik kanpo). Neska-mutiko horientzat astirako eskaintzak berebiziko garrantzia du.